

udaltop

**UDALETAKO
EUSKARA
ZERBITZUEN
TOPAKETAK**



IZENBURUA:

Kirola: oinarritik euskaraz

EGILEA:

Koikili Lertxundi

DATA:

2016/04/21



Aurkibidea

1. Euskararen presentzia kirolean	3
2. Kirol ereduak eta hizkuntzaren arteko harremana.....	4
3. Kirol irakaskuntza formalaren garrantzia.....	5
4. Kirol begirale eta entrenatzaileen formakuntza.....	6



1. Euskararen presentzia kirolean

1. Diagnosi orokorra
2. Ikastolak, eskolak, elkarteak
3. Adin tarteak: hastapena, gaztaroa, heldutasuna

Kirol munduan euskararen presentzia nolakoa den jakin nahi badugu, derrigorrezkoa da erabilerari so egitea, kirol jarduera ezberdinetan euskaraz mintzatzeko ohitura zein punturaino iristen den jakitea alegia.

Zentzu honetan, izan dudan kirol ibilbideaz eta egun dudan lan eskarmentuaz baliatuz, euskarak kirol jardueretan duen presentzia eskasa dela ondorioztatzen dut. Tokian tokiko ezberdintasunak kontuan harturik, oro har kirolaren hizkuntz kodea gaztelera dela agerikoa da, edozein herrialdetan eta kirol modalitate gehienetan.

Halere errealitate honen barne murgilduz, badaude ezberdintasunak eta alde nabarmenak. Adibidez, Ikastoletan, eskola kontzertatuetan, eskola publikoan eta kirol elkarteetan antolatzen diren kirol jardunetan euskararen erabilera nahiko aldakorra da. Normaltasun handienarekin ikastoletan aritzen da euskara han hemenka (estrategikoa), bestelako ikastetxeetan zuzendaritza bakoitzaren apustuaren arabera presentzia duelarik (elebiduna-elebakarra) eta erabileraren zenbakirik eskasena kirol elkarteetan ematen direlarik (askotan elebakarra).

Azkenik, adin tartearen arabera ere aldeak daude, oinarrizko kirolean euskararen presentzia nabarmenena den bitartean, gaztaroan gaztelerazko koderia igarotzeko jarrera argia dago eta heldutasunera heltzean gaztelerako kode elebakarra nagusitzen delarik.

Hortaz, kodeak eta kode hauek errotzeko hartzen diren ohiturak elebakarrak dira, batez ere helduen mundua deskubritzen dugun heinean. Eta jakina da ohiturak aldatzea oso zail suertatzen zaigula. Beraz nola eman ohitura aldaketa? Nondik hasi? Ohitura aldatu behar da edo ohitura sortu? Zeintzuk baliabide ditugu aldaketarako? Nortzuk dira prozesu honetan ardura hartu eta egoera iraul dezaketen pertsonak? Eta administrazioaren papera? Administrazioari itxoin behar diogu aldaketa egoera berria sor dadin?

Duda barik galdera asko eta sakonak dira erantzun beharrekoak, jarraian aurkezten dudana ponentzia honetan horietako batzuei argi printzak jartzen saiatuko naiz.



2. Kirol ereduak eta hizkuntzaren arteko harremana

Euskara eta kirolaren arteko harremana kirol ereduaren bitartez aztertzen dugunean, datu eta ondorio interesgarriak atera ditzakegu. Baina horiek aztertu aurretik gogora ditzagun zeintzuk diren aipatutako ereduak, beti ere kirola eta jarduera fisikoaren artean dagoen debatea bigarren maila batean utziz. Hortaz, kirol bezala aintzat hartzen diren ereduak hauek dira:

4. Kirol profesionala
5. Errendimenduzko kirola
6. Eskola kirola
7. Aisialdia-osasuna eredia

Horrela, askotan sailkapen hau egiteko arazoak ditugun arren, batez ere kirolari buruz jasotzen dugun informaziorik gehiena kirol profesionaletik edo errendimenduzko kiroleatik jasotzen dugulako, sailkapen honek kirol kontzeptua hobeto ulertzen lagun gaitzake.

Zentzu honetan, 4 eredu nagusien baitan azterketa sakon bat egitekotan, eredu bakoitzean euskarari ematen zaion tratamendua oso ezberdina dela ohar gaitzake. Izan ere, helduen mundua eta gaztetxo-umetxoen mundua alderatzen baditugu, adin tarteekin gertatzen den antzeko egoera aurki dezakegu. Hots, batez ere kirol profesionalean eta errendimenduzko kirolean dabilten pertsonen kodea gaztelania den bitartean (salbuespenak albuespen), eskola kirolean eta aisialdi osasunean dabilten pertsonak dira kirolean euskararen presentzia sustatzen ari direnak, hau da, umeei harremana duten kirol jardueratan ari direnak.

Beraz, argia dago oraindik hezkuntza (eskolarra eta familiarra) dela kirol esparruan euskararen ulermen nahiz erabileraren areagotzean erreferentzia azpimarragarriena.

Ondorioz, oinarria sendotzen badugu eta euskararen presentzia normalizatzen badugu, hurrengo erronka nagusiak gaztetxoaren eta helduen munduan aurkitzen dira. Honek ez du esan nahi esparru bat guztiz euskaldundu arte ezin dugunik besteetan eragin, baina bai ordea baldintza egokiagoak daudela esparru batzuetan. Beraz, lan integral bat eginez, elkar elikatua izan daitekeena, aipatutako 3 adin tarteetan euskararen erabilerarekiko urratsak eman daitezke duda barik. Eta hau lortzekotan, normalizazioaren abiada askoz azkarragoa izango da.

3. Kirol irakaskuntza formalaren garrantzia

Helduen esparruarekin jarraituz, kirol arloan euskara eta gazteleraren artean dagoen desoreka nabarmena ulertzeko garaian, berriz ere irakaskuntzara jo behar dugu. Kasu honetan eskola kirolean edo hezkuntza familiarrean



gertatzen ez den bezala, kirol irakaskuntzan aparteko aldea dago ikasketak gazteleraz edo/eta euskaraz egiteko hautua hartzerako orduan.

Izan ere *eskaera eskaintzaren merkatu legeak* ez dio askorik laguntzen esparru hauetan kirol irakaskuntza euskaraz gauzatzeko aukerari. Ohizkoena eskaeraren araberako eskaintza egitea denez eta egun helduen munduan gaztelera nagusitzen denez, tokian tokiko salbuespenak kenduta, normalena helduek kirol ikasketak gazteleraz egitea da. Egoera hau nahiko kontraesankorra da, izan ere mozketa bat ematen da txikitatik euskaraz ikasi dutenen baitan, gehienetan ohizko prozesu mentala aldatu eta kirola gazteleraz ikasteko beste aukerarik ez baitute.

Horrez gain, errealitate honek zer ikusi zuzena du baliabide ekonomikoekin, eskola ofizialen egituren baitan xahutzen diren baliabide gehienak kirol hezkuntza elebakarrera bideraturik daudelarik. Horren lekuko da euskarazko kalitatezko materialaren gabezia, baita eskola ofizialek diru kontuak direla eta aldaketarako eman beharreko urratsei jar diezazkioten egiturazko erresistentziak ere. Guzti honek azaltzen du hein batean eskaintza elebidun ezaren problematika.

Halere, belaunaldi berrien euskalduntze prozesua aintzat harturik, egun, aurreko garaiekin alderatuz, euskararen sustapenerako baldintza hobetoak ematen direla ondorioztatzen dut. Izan ere, hizkuntzarekiko ulermen maila hain altua izanda, erabilera eskasa izan arren, oinarria badago kirol arloan dabilzan pertsonak euskararen erabilerearekiko sentsibiliza daitezten eta ondorioz bere sustapenerako jauzia egin dezaten. Zentzu honetan, kontuan izan behar da pertsona motibatuak behar direla eta motibazioak gehienetan arrazoi psikologikoekin bat egiten duela. Hortaz, eskola ofizialetan euskararekiko samurrak diren arduradun, irakasle eta ikasleak egotea garrantzitsua da.

Baina bultzada ahalik eta toki gehienetatik etorri behar da, baita politika mundutik ere, eta askotan administrazioaren konplexutasuna agerikoa bada ere, urrats sendoak emango lirateke euskara, kirola eta hezkuntza arloen baitan jarduten duten pertsonak ados jarriko balira, behintzat kirol hezkuntzari dagozkion gaietan euskara ere estrategikoa izan dadin.

Hementxe ere agerikoa da erresistentziak eta interes ezberdinak daudela, ordea puntu komunak aurkitzekotan, **eskaintza elebidunaren** beharra izan daiteke horietako bat. Izan ere, gaztelera eta euskara ofizialak izanda, hizkuntza batean, bestean edo bietan irakatsi eta ikas dezaketen pertsonen eskubideak bermatzea helburu komun bat izan daiteke.

4. Kirol begirale eta entrenatzaileen formakuntza

Aurreko paragrafoetan aipatutako lan integralaren adibide garbia izan daiteke hezkuntza formala eta informalean euskararen sustapena modu paraleloan gauzatea. Izan ere, batean helburuak lortzeak ez du esan nahi besteetan lortuko direnik, baina bai sor ditzakeela baldintza eta aukera egokiagoak.

Horrela, kirol irakaskuntza formalean jarduten diren pertsonen lanari, hezkuntza ez formalean dabilzanen ahalegina gainera dakiok. Hau da, nahiz eta titulu ofizialik ez eduki (oinarrian dabilzan entrenatzaile-hezitzaile gehienak), gaztetxoekin dabilzan entrenatzaile-hezitzaileen portzentajerik altuenak euskara ulertzen du. Eta ulertzen dutenaren



eta erabiltzen dutenaren artean alde handia egon arren, baliabideak, erraztasunak eta laguntza ematekotan, egoera aldatzeko prest dauden pertsona erreferenteekin aurki gaitzke, hots, ordu-arte motibaturik ez zeuden pertsona inplikatuekin elkar lanean aritzeko aukera aparta daukagu.

Baina nola lortu gazteleraz erosoago sentitzen direnak euskaraz ere eroso sentitzen hastea?

Galdera honek ez du erantzun errazik, motibazioaz, erosotasunaz, gaitasunaz ... ari garenean oso pertsonala den esparru batean sartzen garelako. Pertsonala bezain beharrezkoa, izan ere askotan kontrakoa iruditu arren, pertsonak gara egoerak eraldatzeko gaitasunik handiena daukagunok. Beraz, kirol esparru honetan ere *Pertsonak helburu* lelo famatuak zer esan handia du, helburu garen bezala subjektu garrantzitsuena ere bagara, helburu eta helduleku aldi berean.

Honek esan nahi du pertsonekin lan egin behar dugula, gaitasuna dutenak sentsibilizatu, formatu eta motibatu behar ditugula, askotan beraiek duten ustezko gaitasun eza burutik kendu eta beraien buruei jartzen dizkieten oztopoak lurrera botatzeraino.

Eta aldi berean, hizkuntza kodeak eta ohiturak moldatu behar ditugu, profil linguistiko ezberdinak ditugun pertsonak, kode berriak jarri behar ditugu abian. Bestela, hizkuntza baten edo bestearen aldeko hautua egiten dugunean, normalean euskara aterako baita galtzaile. Hau da, askotan iruditzen zait deserosotasunetik erosotasunerako jauzia eman behar dugula, joera kontrajarria izan arren.

Zentzu honetan, badaude prozesu honen baitan garrantzi berezia duten pertsonak, kode berriak eraikitzeko garaian aldaketaren motore izateko profil egokiena duten pertsonak alegia. Hauek pertsona elebidunak dira, zehazki bi hizkuntza ofizialak ulertu eta erabiltzeko gaitasuna dutenak, bi hizkuntzatan trebatzeko gaitasuna dutenak, hizkuntza batetik bestera igarotzeko gai direnak. Hots, hainbesteko erraztasuna ez duten pertsonen kode berrien bitartez laguntzeko prest daudenak.